



Euskal kulturari SO. Bertsolaritzaren artikulazioak



22.Aug - 23.Aug 2019

Cod. K04-19

Mod.:

Face-to-face

Edition

2019

Activity type

Summer course

Date

22.Aug - 23.Aug 2019

Location

Miramar Palace

Languages

Basque

Academic Validity

20 hours

Organising Committee

Fundación
BBVA



Description

Bertsolaritza artikulazio berriek bizi dute. Hain segur, hori ere bada azkar egotearen arrazoietakoa bat. Ez da ordea lehen aldia; aurrez nozitu izan du artikulaziorik. Eta horri esker, besteak beste, egokituko zen bertsolaritza egungo gizartera. Biziberritu ala hil. Bertsolaritzak bizi dituen mudez eta didez ariko gara ikastaroan, baina bizi izan dituenak gogoan, distantzia kronologikoak ematen duen argitasunaz. Horretarako baina, euskal kulturari erreparatuko diogu, bertsolaritza bere baitan hartzen duen baratze zabalari; zer kultura da euskaraz kontsumitzen duguna? Nola transmititzen da euskal kultura? Nolakoa da horren baitako bertsozalea?

Arestikoak erantzun ondotik ariko gara bertsolaritzak eduki dituen, eta dituen, hainbat artikulatze; rockarekin, gazteekin, emakumeekin, edo hiztun berriekin. Xalbadorrek zihoen bezala ez da bertsolaritzaren ederrarengatik soilik, baina ezta gurea delako ere; Euskal gizarteak kultur sorkuntzan eta euskararen aurrera egin dezan, kulturagintza mugimenduan eta sorkuntzan artikulatzea estrategikoa dela sinisten dugulako baizik.

Objectives

Euskal Kulturaren egoeraz ohartzea, zehazki kontsumoaz eta (ez) transmisioaz.

Bertsozalearen egoeraren eta bertsozaleen berri ematea.

Kulturagintzak euskararen berreskuratzean duen eraginaz ohartzea.

Bertsolaritzak azken hamarkadetan ezagutu dituen eraldaketen berri eman eta jabetzea.

Une honetan bertsolaritzaren baitan feminismoaren eskutik gertatzen ari den eraldaketaz jabetzea.

Course specific contributors



Program

22-08-2019

08:45 - 09:00	Dokumentazio banaketa
09:00 - 10:00	“Euskal kulturaren kontsumoa” Josu Amezaga Albizu UPV/EHU - Irakaslea
10:00 - 11:00	“Kultur sorkuntzaren transmisioa: ajeak eta erronkak” Iratxe Retolaza Gutierrez UPV/EHU - Irakaslea
11:00 - 11:30	Break
11:30 - 12:30	“Egungo bertsozaletasunaren argazkiak” Harkaitz Zubiri Esnaola UPV/EHU - Irakaslea
12:30 - 13:30	Round table: “Euskal Kulturaren erronkak” Karlos Aizpurua Etxarte Mintzola Ahozko Lantegia - Eragilea (Moderator) Harkaitz Zubiri Esnaola UPV/EHU - Irakaslea Iratxe Retolaza Gutierrez UPV/EHU - Irakaslea Josu Amezaga Albizu UPV/EHU - Irakaslea

23-08-2019

09:00 - 09:45	“Bertsolaritza eta Rocka” Alberto Irazu Ibañez Idazlea
09:45 - 10:30	“Bertsolaritza eta 90ko bertsolari gazteak” Jon Maia Soria Bertsolaria, idazlea
10:30 - 11:15	“Emakumeen presentzia egungo bertsolaritzan” Oihana Iguaran Barandiaran Bertsolari, idazlea
11:15 - 11:45	Break
11:45 - 12:30	“Bertsolaritza eta hiztun berriak” Miren Artetxe Sarasola UPV/EHU - Irakaslea, doktoregaia, bertsolaria
12:30 - 13:30	Round table: “Bertsolaritza artikulatzen; haizea alde eta kontra” Harkaitz Zubiri Esnaola UPV/EHU - Irakaslea (Moderator) Jon Maia Soria Autonomoa - Bertsolaria, idazlea, kantaria Miren Artetxe Sarasola UPV/EHU - Irakaslea, doktoregaia, bertsolaria Oihana Iguaran Barandiaran Ikertzailea, bertsolaria
17:00 - 18:30	“Komentatutako bertso saio feminista”

Nerea Ibarzabal Salegi Bertsolaria, gidoigilea
Miren Amuriza Plaza Bertsolaria, idazlea
Maite Berriozabal Berrizbeitia Gai-jartzailea, kultur eragilea

Directed by



Karlos Aizpurua Etxarte

Bertsozale Elkartea, Ikerkuntza eragilea

Karlos Aizpurua Etxarte (Oiartzun, 1.971). Euskal Filologia (Deustuko Unibertsitatea) eta Enpresa ikasketak (EHU) egin zituen. Mondragon Unibertsitateko Euskal Kulturgintzaren Transmisioko ikasketak egin zituen eta UNEDen Idazle Eskola gradu-ondokoak. Oso gaztetatik bertsolaritzaren hainbat esparrutan aritu da: bertsolari, gai-jartzaile, Hitzetik Hortzera saioko erredaktore, Bertsolari Txapelketa Nagusiko langile; bertsogintzako iruzkingile (Euskadi Irratia, Gara, Euskaldunon Egunkaria eta Berria)... 1989tik 2010era bertsolaritzaren irakaskuntzan aritu zen, Oarsoaldean lehenik, eta, 1998az geroztik Ipar Euskal Herrian gaindi. Iparraldean bertsolaritza irakasle aritzeaz gain, transmisioari lotutako aisialdiko proiektuak diseinatu eta kudeatu zituen. Iparraldeko ikastoletan bertsolaritza irakasteko modu berria aplikatu zuen eta ondorioz hamaika bertso eskola eta bertsolari sortu ziren. 2.010az geroztik Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza eragilea da.

Teachers



Josu Amezaga Albizu

UPV/EHU

Josu Amezaga Albizu (Caracas, 1960) is a professor at the University of the Basque Country, Faculty of Social Sciences and Communication, head of the NOR Research Group. He was Director of the Department of Audiovisual Communication and Publicity. Graduate in Sociology and PhD in Political Sociology for the thesis on Basque culture directed by Paulo Iztueta. His academic career has revolved around language, culture, communication and identity, also observing other minority languages of Europe and the world such as the Basque language, both the languages linked to a territory and the migratory languages. He has been a member of the Management Committee for EiTB and Berria.



Miren Amuriza Plaza

Miren Amuriza Plaza (Berriz, 1990). Euskal Filologian lizentziatua eta Haur eta Gazte Literaturan espezializatua. Urteak daramatza bertsolaritzarekin hartu-emanean plazetan, txapelketetan zein Bertso Eskoletan. Irakasle eta kolaboratzaile lanetan aritua (Berria, Zazpika, Irria, Anboto...), gaur egun idazketari loturiko beharretan dihardu. Haurrei zuzenduriko hainbat lan argitaratu ditu: “Bainera bete itsaso” (Elkar, 2016) album ilustratua edota Katxiporretaren ipuin-sortak (“Hizkuntza zer ote?” eta “Familia milakolore” bildumak, besteak beste). 2017an Igartza beka irabazi zuen eta “Basa” eleberria (Elkar, 2019) argitaratu du aurten.



Miren Artetxe Sarasola

EHU

Euskal Herriko Unibertsitatean Euskal filologian lizentziatu ondoren, Zientzia Kongitiboa eta Hizkuntza masterra burutu zuen Bartzelonako Unibertsitatean. Gaur egun doktoregaia da EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Sailean, Josu Amezaga eta Jone Miren Hernandez ditu zuzendari. EHUko

NOR eta Antropologia Feminista ikerketa taldeetako kidea da. Bere ikerketa eremuak ahozko inprobisazioa, soziolinguistika eta hizkuntzaren antropologia dira. Bertsolaria da.
<http://www.eke.eus/eu/kultura/bertsularitza/ipar-euskal-herriko-bertsularitza/bertsulariak/antologia/artetxe>




Maite Berriozabal Berrizbeitia

Maite Berriozabal (Berriz, 1987) Gai-jartzailea. Publizitatea eta Harreman publikoak ikasi zituen eta euskararen arloan aritu izan da lanean. Urteak daramatza gai-jartzaile lanetan plazan zein txapelketetan. Egun Azkue Fundazioan dihardu lanean.



Nerea Ibarzabal Salegi

Nerea Ibarzabal Salegi (Markina-Xemein, 1994). Bertsolaria. Kazetaritzan graduatua. Txakur Gorria sormen kolektiboko kidea da, eta kolaboratzaile aritzen da hainbat hedabidetan (Berria, Argia, Gaur8, Hitza, Euskadi irratia...).



Oihana Iguaran Barandiaran

Ikus-entzunezko Komunikazio ikasketak egin zituen Leioan eta kazetari gisa jardun zuen lanean. Gizarte Komunikazio Masterra egin zuen EHUen. Haur zela gerturatu zitzaion bertsolaritzari eta azken urteotan bertsozale ez ezik bertsolari bezala dabil askotan. Etengabe marraztu ditu ofizioaren eta afizioaren arteko loturak, eta beharbada horregatik ari da doktoretzako ikerketan. Egiten ari den doktore tesiaren baitan, bertsoaren agenda edo gaitegia zein den deskribatu nahi du, hedabideek bertsolaritzan duten eraginetik abiatuta.



Alberto Irazu Ibañez

Alberto Irazu Ibañez (Andoain, 1970). Gizarte eta komunikazio zientzietan lizentziatua. Hainbat komunikabidetan aritua: Argia (1990 -1994), Irutxulo Donostiako Astekaria (1995 - 2002). Gaztezulo hilabetekaria sortu zuen taldekoa eta bere zuzendari izana (1999 - 2009). Gaztezuloko kide gisa XIV. Rikardo Arregi Saria (Andoaingo Udala, 1997)- eta Ukan Berrikuntza Saria (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, 2008) jasotakoa. Zine kritikari lanetan aritua Euskaldunon Egunkaria, Berria, Euskadi Irratia eta Donostiako Zinemaldiaren aldizkarian. Musikari gisa, ondoko taldeetan jarduna: Karkaxa (Txerokee bilduma; Elkar 1990); Naun (eta legez landako gure mintzairan solastuko; Zaunka Records 1998) eta (Hau da ene ondasun guztia -askoren artean, Txalaparta 1999-); Captain Nemo (Korrontearen kontra, urpekari bat -Metak, 2004-), Gure irratia, zure rokanrolla (askoren artean, Gure Irratia, 2005) eta 1280 Euskal Hiria (autoprodukzioa, 2007). 2017an Rocka puntua! izeneko saikaera argitaratu zuen.



Jon Maia Soria

Jon Maia Soria (Urretxu, 1972). Zumaiara joan zen bizitzera sei urte zituela. Euskal Filologian graduatua da. Bertsolari gisa 1997, 2001, 2005 eta 2009ko Txapelketa Nagusiko finalista izan zen. Baita Gipuzkoakoan ere 2003, 2007 eta 2015 urteetan. Bertsolari izateaz gain, kolaboratzaile moduan aritu da hainbat hedabideetan. Karidadeko Benta musika taldeko sortzaile eta abeslaria izan da. Berriki Hezur beltzak taldea sortu eta bertan aritzen da kantari gisa. Idazle lanetan ere aritzen da: kantuak, gidoiak eta liburuak esaterako; Riomundo (Txalaparta, 2005) eta Berriak jaio ginen (Lanku, 2017). Azken horretan oinarrituta emango du UIK-eko hitzaldia.



Iratxe Retolaza Gutierrez

UPV/EHU

Iratxe Retolaza (Donostia, 1977) es profesora de la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación de la UPV-EHU. Sus investigaciones se enmarcan generalmente en estas dos vertientes: por un lado, se ha especializado en teoría literaria feminista y crítica literaria feminista, analizando principalmente las aportaciones de la literatura vasca actual; y por otro lado, trabaja sobre poesía en el espacio público, tanto analizando las características performativo-poéticas, como las relaciones entre lo poético y lo

político. Entre otros artículos, ha publicado estos dos libros en investigaciones de género: junto a Isa Castillo ha coordinado "Genero-arietak. Feminismoaren subjektuak" (Edo!, 2014), y junto a Edurne Epelde y Miren Aranguren ha publicado "Gure Genealogia Feministak. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren kronika bat" (Emagin, 2015). Es miembro de Emagin, Centro de Formación e Investigación Feminista.



Harkaitz Zubiri Esnaola

Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikertzailea eta irakaslea

Soziologian Doktorea da eta Ingeles Filologian zein Soziologian lizentziatua. Atzerriko Hizkuntzako Irakasle Ikasketetan Diplomatu da. Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzailea eta irakaslea da. Bere ikerketa lerro nagusietako bat euskaraz egiten den kultura da, eta horri buruzko zenbait artikulua eta bi liburu argitaratu ditu, azken hauek elkarlanean. Horrez gain, nobela bat eta narrazio liburu bat ere argitaratuak ditu. https://eu.wikipedia.org/wiki/Harkaitz_Zubiri

Registration fees

REGISTRATION	UNTIL 31-05-2019	UNTIL 22-08-2019
GENERAL	60,00 EUR	70,00 EUR
REDUCED FEE	35,00 EUR	-
REGISTRATION EXEMPTIONS	20,00 EUR	20,00 EUR
COURSES FOR EVERYONE	35,00 EUR	-
SPECIAL FEES	35,00 EUR	-
AEK members	52,50 EUR	-
ELKAR fellow members	52,50 EUR	-
Euskaltegis IKA	52,50 EUR	-

Place

Miramar Palace

Pº de Miraconcha nº 48. Donostia / San Sebastián

Gipuzkoa